

**2004KO URTARRILAREN HOGEITABEDERATZIAN UDAL  
PLENOAK EGINDAKO OHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-**

Zumaiako hirian, bi mila eta laugarren urteko urtarrilaren hogeitabederatzian, arratsaldeko zazpi t'erdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

**LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

**ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.

Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.

Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.

Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.

Andoni ETXANIZ OSA Jauna.

Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.

Mikel GARATE GOLMAIO Jauna.

Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna.

Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.

Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.

**IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

**1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA BIDEZKO BADA: (2003-11-27 eta 2003-12-19).**

Alkate andereak bilera eratutzat eman ondoren, zinegotziren batek onarpenera aurkezturiko aktei buruz oharpenik egin nahi duen galdetzen du.

IZUSTARRI taldekoek bi aipamen egiten dituzte azaroak 27ko aktari buruz.

Batetik gai ordenaren bigarren puntuari buruzkoa; hau da atzerritarren legediaren

erreforma dela eta bi mozio onartu ziren EAJ-k aurkeztua eta EB/IU-k aurkeztua.

Lehenengoan Udalak europako erkidegokoak ez diren atzerritarren Udal erroldako

biztanleen datuak hala eskatu ezgero ukatzeak ez daukala zentzurik esaten zen datu

hauek beste bide batetik lor ditzaketelako eta bigarren mozioan aldiz datu hauen zesioa

ukatzea onartu zen. Kontraesan honek ondoriorik izan duen galdetzen dute.

Bestetik bigarren puntuan bertan genero bortxaketari buruzko EB/IU-k aurkeztu zuen mozioan Eusko Jaurlaritzari, banatze edo dibortzio epaien ondoren ordaindu gabe geratzen diren pentsioei aurre egiteko Fondo bat sortzeari buruz ikerketa bat egin zezan eskatzeko gelditu zela diote.

Alkateak 2.003ko abenduak 19ko aktan EB/IU-k aurkeztu zuen Babes Ofizialeko etxebizitzak eraikitzekeo partida izendatzeko emendakin partzialaren

erantzunean, aktan jadanik Zumaia Lantzenen S.A-n 250.000 €jasotzen direla adierazten da eta are gehiago hurrengo urteetako 600.000 €aurrikusten direla esaten denean, 250.000.000 pta eta 600.000.000 pta esan behar du.

Azkenik PSOE-k zera azpimarratzen du abenduak 19-ko aktan aurrekontuen bozketan beraien abstentzioaren zergatiaren arrazoietan ez dela jaso ikuspegi politiko batetik, beraien aurrekontuak ez zirela eta *Zumaia Lantzenen jadanik atal nagusi bat onartu zutela* ?

Bozketa eginik bilerara bertaturiko zinegotzien aho batasunean onarpenera aurkezturiko bi aktak 2003-11-27 eta 2.003-12-19-ko aktak onartzen dira aipatutako zehaztapenekin.

## **2.-UDALEKO EUSKARA PLANAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:**

Alkate eta Euskara Batzorde burua den Maria Eugenia Arrizabalagak, Zumaiako Udal Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plana egiteko enkargua SIADECO Sozio Ekonomi Ikerketa Elkarteari eman zitzaiola adierazten du.

Planaren idazketa amaiturik Udal barneko euskararen erabilerari buruzko zenbait ondorio atera daitezke.

Dokumentuaren edukia azaltzen ez da erraza. Alderdi ezberdinei agiriaren kopia bat banatu zaizue ezagutza izan dezazuen.

Asteartean, Euskara eta Pertsonal batzorde bateratu bat egin genuen gaiaren aurkezpen formal gisa, eta bertara Planaren egileetako bat etorri zen azalpenak ematera, Ana Franco anderea.

Zumaiako Udal Barneko Euskararen Erabilera Planaren proposamen txostenak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren onarpenera jaso zuen eta Udal Batza Osoari zegokion 2.003ko abenduak 31 baino lehenago plana onestea dirulaguntzak zuritu ahal izateko.

Ahalegin hori egin bazen ere atzeratu beharrean izan genuen quorum arazoak bide.

Planak bederatzi lan eremu nagusi proposatzen ditu: Hizkuntza gaitasuna: prestakuntza eta trebakuntza, Hizkuntza aholkularitza, Itzulpen politika, Kanpo eta barne

harremanak, Hizkuntza-irizpideak, komunikazio plana, hizkuntza paisaia ....

Interesgarria da plana praktikan jartzea eta finkatutako helburuak lortzea.

PSOE-ko Paloma Heredero zinegotziak, zera galdetzen du, kontuan izanik Udala euskararen normalizazioari dagokionez bigarren fase batean murgiltzen dela Udal barneko euskararen erabilera planaren bidez, ea ez dagoen aukerarik euskararen irakaskuntzan hutsetik hastea. Hau da hizkuntza eskakizunak bete ez dituzten langileek ea ez duten aukerarik.

Alkateak zera erantzuten dio, euskararen normalizazioaren hastapenetan, hizkuntz eskakizunak ziurtatu ez zituzten Udal langileerizuzendurik euskara ikasteko ikastaroak antolatu zirela. Portzentaia handi batean langilegoak bere postuari zegokion hizkuntza eskakizuna lortu zuela, baina gutxi batzuk aitortu behar da ez zuten lortu. Orain aurkezten den planak mota honetako ikastaroak ere aurrikusten ditu, baina kasu gutxi batzuetarako. Bi udaltzaingo, Kontuhartzailearentzako eta etxez etxeko

laguntzaileentzako.

PSOE-ko Emiliano Cabañas zinegotziak udal langileek dagokien euskara maila lortzen ez badute zein ondorio erator daitezken galdetzen du. Zenbait Udaletan teknikaririk gabe geldituko lirakeela erantsiaz.

Alkateak berak gai hau Batzordean aztertu zenean galdera berdina egin zuela dio. Eta hor dagoen errealitatea dela azaltzen du. Kasu gutxi batzuetan langileek beraien lanpostuetan eskatzen zaizkien euskara eskakizunak ez dituztela betetzen. Honek arazoak sortzen ditu, baina azken muturrera doazen neurriak baztertu behar direla huste dut. Euskara eskakizunak lortu daitezen baliabideak jarri behar dira, eta helburuak lortzen ez badira ezin dugu odol txarrik egin.

Unibertsitateetako fakultateetan ere gaiak euskaraz irakasteko gaitasuna zalantzazkoa dela derizkio.

Eztabaida amaiturik bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aho batsunean, ERABAKI DA:

SIADeco Sozio Ekonomi Ikerketa Elkartek, diseinatu duen ZUMAIako UDAL EUSKARA PLANA, UDAL BARNEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA, 2.003ko abenduak 29ko 288/2003 Alkate Dekretuz onartua, berrestea.

### **3.- EGITATEZKO BIKOTEEN UDAL ERREGISTROA INDARGABETU.**

Zumaiako Udaletxean Elkarte Zibilen Udal Erregistroa eratzea eta berau arautuko zuen Erreglamendua, 1.996ko abenduak 19ko Udal Batza Osoan onartu zen. Indarrean egon den denboran 33 bikote inskribatu dira. Hauetatik gutxi batzuk baja eman zuten, eta beste batzuk ezkondu egin ziren.

Maiatzaren 7ko 2/2003ko Lege bidez Eusko Autonomi Erkidegoko Administrazioak egitatezko bikoteen erregistroa eratu zuen. Bikote hauen elkarbizitzak ezkonduko bikoteek duten izaera juridikoa izan dezaten, eskubide fiskalei dagokionez edo eskubide zibilei, Autonomi Erkidegoko Erregistro honetan inskribatu behar dira nahita ez. Beraz, bikote hauetako bakoitzari gutun bat igorri zitzaion egoeraren berri emanaz eta bide batez beraien datuak Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko baimena eskatuaz. Gehientsuenak baimendu gaituzte eta beraien espediente pertsonalak Jaurlaritzara igorri dira.

Izapide hau beterik eta kontuan izanik bikote hauek inskribatzen diren erregistroak, ezkonduko bikoteeri legeak ezagutzen dizkien eskubide beretsuak eskaintzea nahi dutela, derrigorrezkoa dute Autonomi Elkarteko Erregistroan izena ematea. Ez dauka zentzurik inskripzioak bikoiztea eta beraz Udal erregistroa indargabetzea proposatzen da.

Bidezkotzat jotzen da bestalde Udalak Jaurlaritzarekin hitzarmen bat izenpetzea, bikote hauek Donostiara joan beharrik gabe Udalaren bidez inskripzioa egitea ahalmenduz.

Gaia eztabaidaturik, bozketa egiten da, eta eskubidezko hamahiru zinegotzietatik bilerara bertaraturiko hamabi zinegotziren aho batsunean, ERABAKI DA:

Egitatezko Bikoteen Udal Erregistroa eta berau arautzen duen erreglamendua indargabetzea.

#### 4.-ESKARI GALDERAK:

Alkateak, Udalak ateratzen duen aldizkarian Udalean ordezkaritza duten alderdiek aurrerantzean ahotsa izango dutela dio. Aldizkari hau bi hilabetetik behin argitaratzen da. Zera azpimarratzen du oso garrantzitsua dela alderdiek beraien textuak argitaratuak izan daitezen nahiko aurrerapenez aldizkariaren udal arduradunari igortzea.

Lide Amilibia zinegotzia eta aldizkariaren arduradunak, hurrengo alea Otsailaren hirugarren asten aterako dela dio. Hurrengo, apirilean, ekainean, abuztuan ... Berandu jota alderdiek aldizkaria argitaratu behar den hilabeteko lehenengo ostegunean, 10-etik 15 lerrotara doan textua igorri behar didate 12 tamainako letran. Informazioa bidali beharreko helbidea [lide@zumaia.net](mailto:lide@zumaia.net) da. Eta textu horietan aipatu beharreko gaiak berriz Plenoko gaiak izan behar dute. Zumaiarrek, Udal Batzak zertaz eztabaidatzen duen jakin dezaten. Beraz alderi bakoitzak gai haueri buruzko bere iritzia eman dezan zutabe bat izango du.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari andereak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortziak eta hogeitamar minutu direnean, eta nik Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK